



## NAMARMENAK

Europar Batasunak elkarte akordio boluntarioa izenpetu du Hondurasekin FLEGT erregelamenduaren esparruan.

EFI-FLEGT, 2018/06/15 - [BERRIRACO ESTEKA](#)

Europako Batzordeak kontsulta publiko bat jarri du abian EUTR produktuen irismenaren inguruan.

29/01/2018 – 2018/04/24 - [BERRIRACO ESTEKA](#)

INTERPOL-en laguntza basogintza-ren sektorean ingurumen delituak desagerrarazteko.

2018/03/21 - [BERRIRACO ESTEKA](#)



## BERRIAK

MAPA, 2018/02/06



“EUTR” sistema informatikoa jarri da abian merkaturatutako zuraren inguruko erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko

[BERRIRACO ESTEKA](#)

MAPA, 2018/03/16



Espainian onetsitako 2000 FLEGT lizentzia eman dira Indonesiatik inportatutako legezko zura merkaturatzeko

[BERRIRACO ESTEKA](#)

MAPA, 2018/02/05-06




## Espainiak Zuraren Mediterraneoko Taldea sustatu nahi du

Landa Garapen, Berrikuntza eta Basogintza Politikako Zuzendaritza Nagusiak (DGDRIPF), Portugalekin batera, ezarri ditu Mediterraneoko koordinazioaren oinarritzko baldintzak eskualdeko kide diren bederatzi estatuen arteko legez kanpoko zurezko produktuen trafikoaren aurka borrokatzeko tresna gisa.

Taldea topagune eta informazio trukerako esparru moduan sortu da baliabide erkideak ahalik eta hoberen ustiatu eta koordinatzeko xedearekin. Horretarako, kasuaren arabera, beharrezkoak diren kontrol mekanismo erkideak ezartzen dira legez kanpoko merkataritza Mediterraneo osoan desagerrarazteko.

Hauek izan ziren pasa den ekainaren 5eko eta 6ko deialdira bertaratu ziren herrialdeak: Txipre, Espainia, Eslovenia, Frantzia, Grezia, Italia, Malta eta Portugal. Herrialde hauek guztiak lankidetzara emankor honekin aurrera egiteko konpromisoa hartu zuten eta koordinazio bilerak urtean behin antolatzea adostu zuten.



## Inportazio arriskutsuak

### Legezkoasunik ezaren arrisku handia Myanmarretik inportatutako teka zuraren ustiaketan.

**Asiako herrialde honetatik burututako inportazioek, bereziki teka (*tektona grandis*) zuraren inportazioek, EUTR erregelamenduak xedatutako baldintzak ez betetzeko arrisku handia dago.**

Egungo sistema birmaniarrek konplexuak dira kanpoko agenteentzat eta arriskuak dakartzate agenteentzat zaintza katearen trazabilitatea egiaztatzeko orduan. Myanmarreko Baliabide Natural eta Ingurumen Zaintzarako Ministerioak (MONREC) **adierazpen publiko** batean aitortu zuen arrisku hori eta, ondorioz, EUTR araudian xedatutako agentearen arazoizko arretari buruzko betekizunak ez betetzea dakar horrek.

Ildo honetatik, **Ingurumen Ikerketarako Agentziak** (Environmental Investigation Agency, EIA ingeleseko akronimoaren arabera) 2016. urtean aurkeztu zuen **txostenean** jada azaldu ziren mota honetako zura merkaturatzeko zeuden zailtasunak.

Testuinguru honetan, Danimarkak, Espainiak, Alemaniak, Belgikak, Italiak eta Herbehereek kontrolak burutzen dizkiete enpresa inportatzaileei eta aztertutako kasu guztietan antzematen dituzte EUTR erregelamenduaren arau hausteak.

2016ko azaroan, **Suediako administrazio epaitegi** batek lehenengoz epaitu zuen Myanmarretik teka zura inportatzen zuen Almtra Nordic enpresak EUTR obligazioak urratu zituela. Epai historiko horren urratsei jarraituta, kontrol kanpainan parte hartzen duten gainerako herrialdeek ebaluatutako enpresen inportazioak geldiaraztea erabaki dute.

Horregatik guztiagatik, oraindik ere ez da gomendagarria Myanmarretik datorren teka inportatzea, Europako Batzordeko **EUTR Adituen Taldeak** berak pasa den 2018ko ekainaren 19an aitortu zuen moduan. Adierazpen hartan azaldu zuten, legezkoasunik ezaren arriskua duten honelako kasuetan araudiak zuraren jatorria aztertzea eskatzen duela, ustiaketa herrialdeko jatorrizko eskualdera iritsi arte, dokumentazio ofizialetik haratago doazen frogak aurkeztuta.

### Brasiletik datorren ipe zuraren legezkoasunik ezaren arrisku handia

**Greenpeace-ek duela gutxi argitaratutako bi txostenetan aipatu dira Brasiletik datorren espezie honen inportazioen legezkoasunik ezaren susmo oinarritunak.**

Lehenengo txostenak azaltzen du luraren jabetza eskubideen inguruko egungo gatazka, bereziki **Rondonia eskualdean**, eremu hartan dagoen indarkeria eta zuraren ustiaketarako lurak usurpatzeko kasu jakinetan erabiltzen diren bitartekoak agerian utzita.

Bigarren txostenean aipatzen dira **ipe zuraren (*Tabebuia impetiginosa* eta *T. serratifolia*) dentsitatearen gainestimazio** susmoak tokiko basogintza inbentarioetan, bereziki babestutako eremuetatik hurbileko esleipenetan.

Hainbat **azterlan zientifikok** gainestimazio hori baieztatu dute merkataritza balio bereziki altua duten Brasileko espezie jakinen esleipenetan, ipe zurarenak besteak beste.

Europako Batzordeko **EUTR Adituen Taldearen** ondorioen arabera, landaketetatik ez datorren Brasileko zura inportatzen duten agenteek arriskua arintzeko neurri egokiak hartu behar dituzte, arriskuen analisia dokumentazio kontroletan soilik oinarritu beharrean. Kasu hauetan, beharrezkoa da behar bezala baimendutako hirugarrenek egiaztapenak burutzea edo jatorriaren legezkoasun frogak agerikoak aurkeztea.



## Legezko zuraren betekizunak errespetatzeko lanean

MAPA erakundeak hainbat mailatan egiten du lan arauaren eraginkortasuna areagotzeko eta zuraren kontsumoari lotutako basogintza, merkataritza eta gizarte arauen errespetua bermatzeko xedearekin.

### Nazioarteko koordinazioa

- ▶ **EB – Txina Aldebiko Koordinazio Mekanismoaren (BCM) bilera basogintza legeriaren aplikazioaren eta gobernantzaren inguruan.** 2018ko martxoak 7. Legez kanpoko zuraren aurka borrokatzeko modurik onenaren bila ari gara Asiako erraldoiarekin batera. ([Ikusi](#) BCM mekanismoari buruzko informazioa).
- ▶ **Europako Batzordeko FLEGT/EUTR adituen taldea.** Brusela, 2018ko otsailak 26, apirilak 19, ekainak 20. Batzordearen eta 28 estatu kideen arteko bilerak Europar Batasunean FLEGT eta EUTR erregelamenduak aplikatzeko irizpideak bateratzeko xedearekin. ([Ikusi](#) taldearen bileren inguruko informazioa).
- ▶ **EUTR erregelamenduaren inplementazioa Mediterraneoko estatu kideen agintaritza eskudunen aldetik.** Portugal-Espainia, Lisboa, 2018ko ekainak 5-6. Merkataritza trukeen alorrean antzeko kasuistika dituzten estatu kideen artean kontrol jarduketa erkideak bateratzeko lanean.

### Koordinazio nazionala


- ▶ **Legez kanpo ustiatutako zuraren merkaturatzearen aurka borrokatzeko lantaldea.** DGDRIPF, Madril, 2018ko apirilak 24. Autonomia erkidegoetako agintaritza eskudunen artean EUTR kontrola modu bateratuan aplikatzeko koordinazio organoaren bilera.



## Legezko zuraren betekizunak errespetatzeko komunikazioa

MAPA erakundeak hainbat ikastarotan parte hartzen du eta hainbat ikastaro sustatzen ditu EUTR esparru barneko betebeharrak ezagutzera emateko

- ▶ **Merkaturatzearen legezkotasunaren inguruko ikastaroa.** AEIM, 2018ko martxoak 9. MAPAren partaidetza.
- ▶ **Zuraren balio katearen berrikuntza, legezkotasun eta iraunkortasunaren inguruko ikastaroa.** PEFC Espainia, 2018ko maiatzak 8. MAPAren partaidetza.
- ▶ **Merkaturatutako zuraren legezkotasunaren inguruko jardunaldia.** PEFC Espainiak antolatua, Emplea programaren esparruan, 2018ko ekainaren 20an. MAPAren eta Andaluziako agintaritza eskudunaren partaidetza.
- ▶ **EUTR erregelamendua eta basogintza enpresen betebeharrak.** Kataluniako agintaritza eskuduna, 2018ko martxoak 9.
- ▶ **FSC zura, EUTR eta eraikuntza Galizian.** FSC, 2018ko apirilak 26. Galiziako agintaritza eskudunaren partaidetza.
- ▶ **EUTR erregelamenduaren inguruko jardunaldia, 1. eta 2. motako agenteen arrazoizko arreta.** Baskegur, 2018ko martxoak 3. Euskadiko agintaritza eskudunaren partaidetza.



**EUTR**  
erregelamenduaren  
inguruko nazioarteko  
berrien aldizkariak

*\* Aldizkari hauetako edukiek egileen iritzia islatzen dute. MAPA erakundeak ez du inolako erantzukizunik hartzen informazio horri eman dakioken erabileraren inguruan.*

- ▶ **Europar Batasuneko informazio oharrak**  
2017ko azaroa – 2018ko urtarrila – **Ikusi aldizkaria**  
2018ko otsaila – 2018ko martxoa – **Ikusi aldizkaria**
- ▶ **EUTR berriak – 2017ko martxoa - 2018ko martxoa**  
Client Earth, 2018 – **Ikusi aldizkaria**
- ▶ **EUTR berriak: 2018ko martxoa – maiatza**  
Client Earth, 2018– **Ikusi aldizkaria**

Zuhaitzek eta zurak zure hiria osasungarriago eta iraunkorrago bihurtzen dute. @mapagob-etik eta autonomia erkidegoetatik zuraren legezotasuna bete dadin lan egiten dugu

#maderalegal #EUTR #FLEGT #IntlForestDay #DiaInternacionaldelosBosques

<https://twitter.com/mapagob/status/976405744089264133>



Informazio gehiago

[https://www.mapa.gob.es/es/desarrollo-rural/temas/politica-forestal/Madera\\_Legal\\_FLEGT\\_EUTR/](https://www.mapa.gob.es/es/desarrollo-rural/temas/politica-forestal/Madera_Legal_FLEGT_EUTR/)



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE AGRICULTURA, PESCA  
Y ALIMENTACIÓN

